

OPOSIZIOA

1969/2024 EBAZPENA, maiatzaren 20koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko erdi mailako euskara teknikarien 11 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onesten duena.

(NAOren 127. alea, 2024ko ekainaren 20koa)

Oposizioaren lehenengo proba

Lehenengo ariketa

Ariketa mota:	test motako galdetegia
Galdera kopurua:	90 galdera
Gaiak:	1. zatia (araudi orokorra) 2. zatiko 1. gaitik 25.era
Denbora:	2 ordu
Balioa:	30 puntu

Iruñean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan,
2024ko abenduaren 23an,
9:00etan.

1- Espainiako 1978ko Konstituzioak honako hau dio erlijio, ideologia edo sineskizunen gainean:

- a. Estatuko erlijio ofiziala katolikoa da.
- b. Ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sineskizunak aitortzera.
- c. Eliza Kristauarekin, besteekin ez bezala, lankidetzaren harremanak izango dituzte botere publikoek.
- d. Ideologia berrietako jarraitzaileek beren bizitokian erroldatuta egon behar dute.

2- Espainiako 1978ko Konstituzioak honako hau dio espainiarren bizitokiaren gainean:

- a. Espainiarrek jaio diren lurraldean bizitzeko eskubidea dute, baina, beste lurralde batzuetara mugitzeko, lurralde hartzailearen baimena behar dute.
- b. Espainiarrek beren bizitokia libreki aukeratzeko eskubidea dute, baita lurralde nazionaletik zehar ibiltzeko ere.
- c. Espainiarrek, lurralde penintsularretik kanpo jaio direnean, beren jatorrizko lurraldearen baimena beharko dute beste lurralde batzuetara mugitzeko.
- d. Sorterriz espainiarra denak bere naziotasuna galduko du atzerrira bizitzera joaten bada.

3- Espainiako 1978ko Konstituzioak honako hau dio hizkuntzen gainean:

- a. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko aukera eta erabiltzeko eskubidea.
- b. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira estatuko eremu osoan, autonomia erkidegoetako estatutuekin bat etorriz.
- c. Espainiako hizkuntzen aberastasuna kultur ondare bat da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.
- d. Espainiako hizkuntzen aberastasuna kultur ondare bat da, eta espainiar guztiek dute haiek jakiteko beharra eta erabiltzeko eskubidea.

4- Noiz eratu zen Europar Batasuna?

- a. 1992. urtean.
- b. 1993. urtean.
- c. 1986. urtean.
- d. 2013. urtean.

5- Europar Parlamentuak hiru motatako eskumenak ditu:

- a. Militarra, ekonomikoa eta aisialdia antolatzekoa.
- b. Araugilea, kontrol politikoa eta aurrekontuen gainekoa.
- c. Erljio ofizialak, herritarren zirkulazioa eta osasuna.
- d. Esportazioen kontrola, nazioarteko harremanak eta aurrekontuen gainekoa.

6- Europar Batasuneko zuzenbidean zer dira Erregelamendua, Zuzentaraua eta Erabakia?

- a. Batasuneko lehen mailako zuzenbidearen tresna juridikoak.
- b. Batasuneko zuzenbidea tokian-tokian egikaritzeko baliabide juridikoak.
- c. Batasunak sinatutako nazioarteko akordioak.
- d. Batasunetik eratorritako zuzenbidearen tresna juridikoak.

7- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera, zein dira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea osatzen duten merindade historikoak?

- a. Elizondo, Lizarra, Tuter, Zangoza eta Erriberri.
- b. Iruña, Lizarra, Tuter, Zangoza eta Iriberri.
- c. Iruña, Lizarra, Tuter, Zangoza eta Erriberri.
- d. Iruña, Lizarra, Zangoza, Elizondo eta Tafalla.

8- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera:

- a. Parlamentuko kideak hirurogeita hamar dira.
- b. Parlamentuko kideak berrogeita bost dira.
- c. Parlamentuko kideen kopurua ez da berrogei baino gutxiago izanen, ez eta hirurogei baino gehiago ere.
- d. Parlamentuko kideak hirurogei dira.

9- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera, nork ematen ditu foru aginduak?

- a. Kontseilariak.
- b. Zerbitzuetako zuzendariak.
- c. Nafarroako lehendakariak.
- d. Nafarroako Diputazioak.

10- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera, noren eskumena da Nafarroako senatariak hautatzea?

- a. Nafarroako Gobernuarena.
- b. Nafarroako Parlamentuarena.
- c. Nafarroako lehendakariarena.
- d. Senatuarena.

11- 9/2019 Foru Legearen arabera, erregelamendu ahalmenaren titularrak honakoak dira:

- a. Lehendakaria, Nafarroako Gobernuko kontseilariak eta idazkari tekniko nagusiak.
- b. Lehendakaria eta Nafarroako Gobernuko kontseilariak.
- c. Gobernua, lehendakaria eta Nafarroako Gobernuko kontseilariak.
- d. Gobernua eta lehendakaria.

12- Nor da Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria?

- a. Rebeca Esnaola Bermejo.
- b. Ignacio Apezteguía Morentin.
- c. Félix Taberna Monzón.
- d. Amparo López Antelo.

13- 161/1988 Foru Dekretuaren arabera, emandako eskolengatik dirulaguntza jaso ahal izateko, euskaltegiek, besteak beste, baldintza hau bete behar dute:

- a. Irabazi asmorik gabeko erakunde gisa erroldatuta egotea.
- b. Ikasgelen azalera, gutxienez, ikasleko bost metro karratukoa izatea.
- c. Irakasle guztiek EGA edo titulazio baliokidea edukitzea.
- d. Irakasle guztiak Nafarroan erroldatuta egotea.

14- 161/1988 Foru Dekretuaren arabera, dirulaguntza jaso ahal izateko, euskaltegiek, ikasleei dagokienez, besteak beste, baldintza hau bete behar dute:

- a. Ikasle guztiek Nafarroan erroldatuta egon behar dute.
- b. Ikasleen bertaratzeen eta ebaluazioaren kontrola egin behar dute.
- c. Ikasleek 14 urtetik gorakoak izan behar dute.
- d. Talde bakoitzeko gutxienezko ikasle kopuruak 8 izan behar du.

15- 195/1993 Foru Dekretuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolatzen ez dituen ikastaroak denbora librean egiteagatik, zein da langile publikoentzat aurreikusten den gehieneko diru-kompentsazioa?

- a. 36.604,92 pezeta (220,00 euro).
- b. 15.000 pezeta (90,15 euro).
- c. 22.000 pezeta (132,22 euro).
- d. 20.000 pezeta (120,20 euro).

16- 195/1993 Foru Dekretuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolatutako ikastaroetan, ikastaro trinko bat egiteagatik, nolako denbora kompentsazioa egiten zaio langileari?

- a. 13 egun lan denboraren kargura eta 7 egun langilearen denbora librearen kargura.
- b. Ikastaro osoa lan denboraren kargura.
- c. 10 egun lan denboraren kargura eta 10 egun langilearen denbora librearen kargura.
- d. Ikastaroaren iraupenaren % 5 langilearen denbora librearen kargura; gainontzekoa, lan denboraren kargura.

17- 195/1993 Foru Dekretuaren arabera, bi asteko barnetegi batean parte hartzeagatik zenbat lanegun kompentsatzen zaizkio langileari?

- a. 10 egun.
- b. 7 egun.
- c. Ez da egunik kompentsatzen.
- d. 5 egun.

18- Zein ziurtagiri edo titulu da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako B1 mailarekin baliokidea Nafarroan?

- a. Tarteko mailaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2009koa edo geroagokoa).
- b. Eusko Jaurlaritzak luzatutako salbuespen ziurtagiria.
- c. Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan 4. urratsa gainditu izanaren ziurtagiria.
- d. 1. maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa).

19- Zein ziurtagiri edo titulu da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako A1 mailarekin baliokidea Nafarroan?

- a. Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan 1. urratsa gainditu izanaren ziurtagiria.
- b. Eusko Jaurlaritzak luzatutako salbuespen ziurtagiria.
- c. Egiaztapenen 1. maila gainditu izanaren ziurtagiria, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak luzatua.
- d. 2. maila gainditu izanaren ziurtagiria, edozein hizkuntza eskola ofizialek luzatua (2008koa edo lehenagokoa)

20- Espainiako Kode Zibilaren arabera, zein EZ da zuzena?

- a. Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak.
- b. Legeak indarrean jarriko dira *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hamargarren egunean, legeetan beretan besterik xedatu ez bada.
- c. Ez dute baliorik izango goragoko mailako xedapenen bat urratzen duten xedapenek.
- d. Nazioarteko itunetan jasotako arau juridikoak ez dira Espainian zuzenean aplikatuko barne antolamenduaren osagai bihurtu arte, arauok *Estatuko Aldizkari Ofizialean* oso-osorik argitaratuz.

21- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera:

- a. Egoitza elektronikoek, salbuespenik gabe, komunikazio seguruak eskaintzen dituzten sistemak eduki behar dituzte.
- b. Egoitza elektroniko bat ezarriz gero, administrazioaren erantzukizuna izango da horren bidez irits daitekeen informazio guztia egiazkoa eta eguneratua izatea.
- c. Egoitza elektronikoa administrazioko langileek telekomunikazio-sareen bitartez balia dezaketen helbide elektroniko bat da.
- d. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko ditu egoitza elektronikoak eratzeko baldintza eta tresna egokiak.

22- Zer dio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeak administrazio publikoetako langileen sinadura elektronikoki buruz:

- a. Sinadura elektronikoko sistemak ahalbideratuko du langilearen identifikazio datu guztiak ezabatzea.
- b. Sinadura elektronikoko sistemak identifikatu ahal du nor den lanpostuaren edo karguaren titularra eta zer administrazio edo organotan ematen duen zerbitzua.
- c. Segurtasun publikoko arrazoiengatik, sinadura elektronikoko sistemek ez dute inoiz adieraziko enplegatu publikoaren identifikazio profesionaleko zenbakia.
- d. Administrazio publikoak ez du bere langileek erabili behar dituzten sinadura elektronikoko sistemak kudeatzeko eskumenik.

23- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoak:

- a. Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea aldarrikatzen du.
- b. Nazio Batuen Biltzar Orokorrek 1979an onetsitako eta Espainiak 1983an berretsitako printzipioak ezartzen ditu.
- c. Parisko Tratatuaren 111. artikulua babesean, sexuen arteko berdintasunaren gainean Europako Erkidegoko arau-multzoa garatzen du.
- d. a), b) eta c) zuzenak dira.

24- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, zein EZ da zuzena?

- a. Lege organikoak berariaz ezartzen du hirurehun langiletik gorako enpresetan berdintasun-planak negoziatu behar direla.
- b. Lege organikoak arreta berezia jartzen du bereizkeria bikoitzeko kasuetan eta ahulezia berezia duten emakumeengan.
- c. Lege organikoak kontuan hartzen ditu Espainiako politika publiko guztiak, estatukoak, autonomia-erkidegoetakoak eta toki-administrazioak.
- d. Lege organikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kode-legea izateko asmoa du.

25- Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen 48. eta 49. artikuluen arabera, zein EZ da zuzena?

- a. Erantzukidetasuna bultzatzeko, Administrazio Publikoek berariazko jarduketak sustatuko dituzte eremu produktiboan eta erreproduktiboan erabiltzen den denboraz eta ordutegiez sentsibilizatzeko.
- b. Nafarroako Gobernuak lan ordutegi malguagoak ezartzeko berariazko jarduketak sustatuko ditu, baina soilik arlo publikoan.
- c. Administrazio Publikoek aldaketa prozesuak sustatuko dituzte antolaketaren eremuan, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko.
- d. Familia gurasobakar baten ardura duten eta arazo ekonomiko eta kontziliaziokoak dituzten emakumeentzako neurriak diseinatuko dira.

26- Sektore Publikoari buruzko 40/2015 Legearen 2.1 artikuluen arabera, zein dira sektore horretan sartzen diren erakundeak?

- a. Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
- b. Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak eta toki-administrazioa osatzen duten entitateak.
- c. Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoen administrazioak.
- d. Estatuaren Administrazio Orokorra, eskumenak transferituak ez dituzten autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.

27- Sektore Publikoari buruzko 40/2015 Legearen arabera, kudeaketa-gomendio batek zer ondorio ekartzen ditu eskumenen lagapenari dagokionez?

- a. Eskumenaren titulartasuna lagatzea dakar, baina ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea.
- b. Eskumenaren titulartasuna eta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea dakar.
- c. Ez dakar eskumenaren titulartasuna lagatzea, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea ere.
- d. Eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea baino ez dakar berekin, baina ez eskumenaren titulartasuna lagatzea.

28- Sektore Publikoari buruzko 40/2015 Legearen 48.2 artikulua arabera, hitzarmenen bidez, besteak beste, zer lortu behar da?

- a. Kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu behar da.
- b. Baliabideak eta zerbitzu publikoak modu efiziente eta jasangarrian erabiltzea bideratu behar da.
- c. Administrazio epeak laburtu behar dira.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

29- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura arautzen duen 39/2015 Legearen 54. artikulua arabera, nola ematen zaio hasiera administrazio prozedurari?

- a. Ofizioz baino ezin zaio hasiera eman.
- b. Interesdunak eskaturik baino ezin zaio hasiera eman.
- c. Ofizioz edo interesdunak eskaturik has daiteke.
- d. Ofizioz edo edozein herritarrek eskaturik has daiteke.

30- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura arautzen duen 39/2015 Legearen 30.2 artikulua arabera, epeak egunetan jartzen badira, zer ulertuko da?

- a. Egun baliodunak direla.
- b. Egun naturalak direla.
- c. Ondo ondoko egunak direla.
- d. Egun baliodunak direla, igandeak eta jaiegunak zenbaketatik kanpoan utzita.

31- Langile Publikoen Estatutua arautzen duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren arabera:

- a. Funtzionarioak ondoko egoeraren batean egon daitezke: a) Jarduneko zerbitzuan. b) Zerbitzu berezietan. c) Zerbitzu-eginkizunetan. d) Eszedentzian. e) Eginkizun-gabeturik.
- b. Eszedentzia borondatezkoa, berezia edo nahitaezkoa izan daiteke.
- c. Funtzionarioak eskatuta, eszedentzia berezia deklaratu daiteke, bi urterako gehienez subjektu eragile bakoitzeko.
- d. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileria hauexek osatzen dute: a) Funtzionario publikoek. b) Behin-behineko langileek. c) Langile lan-kontratadunek. d) Praktiketako langileek.

32- Langile Publikoen Estatutua arautzen duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren arabera:

- a. Funtzionarioak dauden mailaren barnean kategoriaz igo daitezke, honela: a) Graduz igotzeko oposizio berariazkoetara aurkezturik. b) Merezimendu lehiaketa egin ondoren. c) Burutza baterako izendatua izanda.
- b. Funtzionarioek graduz gradu eginen dute gora, gradu bakoitzean 7 urte eta 6 hilabete egin ondotik.
- c. Funtzionario bat ez da inolaz ere zortzi urte baino gehiago egonen gradu berean, 7. gradua erdietsi dutenak izan ezik.
- d. Graduz igotzeko nahitaezkoa izanen da aurreko graduan, gutxienez, hiru urte egon izana.

33- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen arabera, hauetatik zein jotzen da Nafarroako sektore publikotzat?

- a. Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua.
- b. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- c. Euskararen Nafar Kontseilua.
- d. Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa.

34- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen 35. artikulua arabera:

- a. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio Nafarroako Gobernuaren esku jartzea Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legearen aurreproiektua, hark horri buruzko erabakia har dezan.
- b. Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuari dagokio Nafarroako Gobernuaren esku jartzea Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legearen aurreproiektua, hark horri buruzko erabakia har dezan.
- c. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren esku jartzea Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legearen aurreproiektua, hark horri buruzko erabakia har dezan.
- d. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio Nafarroako Parlamentuaren esku jartzea Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legearen aurreproiektua, hark horri buruzko erabakia har dezan.

35- Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen arabera, dirulaguntzak ematen dituzten organo administratiboek esleitutako dirulaguntzen berri eman behar dute eta datu hauek zehaztu behar dituzte:

- a. Deialdia, dirulaguntza zer aurrekontu-programari eta –kredituri egozten zaion, balorazio batzordea, emandako diru kopurua eta dirulaguntzaren xedea.
- b. Deialdia, dirulaguntza zer aurrekontu-programari eta –kredituri egozten zaion, unitate kudeatzailea, emandako diru kopurua eta dirulaguntzaren xedea.
- c. Deialdia, dirulaguntza zer aurrekontu-programari eta –kredituri egozten zaion, bateraezintasuna, emandako diru kopurua eta dirulaguntzaren xedea.
- d. Deialdia, dirulaguntza zer aurrekontu-programari eta –kredituri egozten zaion, onuraduna, emandako diru kopurua eta dirulaguntzaren xedea.

36- Gora jotzeko errekurtsio baten ebazpena emateko eta jakinarazteko epea honakoa da:

- a. Hamabost egunekoa da.
- b. Hilabete batekoa da.
- c. Hiru hilabetekoa da.
- d. Ez dago epe finkorik.

37- Nolako unitate organikoak sor daitezke idazkaritza tekniko nagusi baten barruan?

- a. Zerbitzuak eta hortik beherakoak.
- b. Edozein unitate organiko.
- c. Atalak eta hortik beherakoak.
- d. Departamentuak eta zuzendaritza nagusiak.

38- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetakozuzendariak...

- a. Funtzionarioak izan behar dute eta foru dekretu bidez izendatzen dira.
- b. Ez dute funtzionarioak izan behar, eta foru dekretu bidez izendatzen dira.
- c. Funtzionarioak izan behar dute eta foru agindu bidez izendatzen dira.
- d. Ez dute funtzionarioak izan behar, eta foru agindu bidez izendatzen dira.

39- Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko betebeharrak arautzen dituen 5/2018 Foru Legearen 34. artikulua arabera, informazio publikoaren eskaerak zer hizkuntzatan egin daitezke?

- a. Gaztelaniaz, horixe baita Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan hizkuntza ofizial bakarra.
- b. Nafarroako Foru Komunitatean ofizialak diren hizkuntzetatik edozeinetan.
- c. Eremuaren arabera: eremu euskaldunean eta mistoan euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke. Eremu ez-euskaldunean, aldiz, gaztelaniaz.
- d. Eremuaren arabera: eremu euskaldunean euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke. Eremu mistoan eta ez-euskaldunean, aldiz, gaztelaniaz.

40- Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko betebeharrak arautzen dituen 5/2018 Foru Legearen arabera, informazio publikoaren eskaera bat egitean, eskatzaileak eskaera egiteko arrazoiak azaldu behar dizkio Administrazioari?

- a. Bai, ezinbestekoa da eskaera onartua izan dadin.
- b. Bai, Administrazioak egiazta dezan eskaeraren atzean fede ona dagoela.
- c. Eskatzaileak informazio publikoaren eskaera zer administraziori bideratu behar dion eta administrazio horren barne-araudian zehaztutakoaren arabera arrazoiak azaldu beharko ditu ala ez.
- d. Ez, eskatzaileak eskaera egiteko arrazoirik ez dio zertan azaldu Administrazioari.

41- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko araudia jasotzen duen 3/2018 Lege Organikoaren arabera, datuen tratamenduaren arduradunek eta eragileek noiz arte jokatu behar dute konfidentziasunez eta sekretu profesionalaz?

- a. Betebeharpekoak tratamenduaren arduradunarekin edo eragilearekin duen harremana amaitu arte.
- b. Betebeharpekoak tratamenduaren arduradunarekin edo eragilearekin duen harremana amaitu eta urtebetera arte.
- c. Tratamenduaren arduradunarekiko edo eragilearekiko harremana amaitu eta hamar urtera arte mantenduko dira.
- d. Konfidentziasun-betebeharrak bere horretan jarraituko du, nahiz eta betebeharpekoak tratamenduaren arduradunarekin edo eragilearekin duen harremana amaituta egon.

42- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7. artikulua helburuak eta printzipioak zehazten ditu. Honako aukeretatik, zein EZ da aipatzen?

- a. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak aitortzea, kultur aberastasunaren erakusle dira eta.
- b. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- c. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak bizitza publikoan eta pribatuan ahoz eta idatziz erabiltzea erraztu edota sustatzea.
- d. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei buruzko azterketak eta ikerketak sustatzea unibertsitateetan edo erakunde baliokideetan.

43- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak zortzi eremu aipatzen ditu. Zortzi horietatik bitan, sinatzaileek gutxienez hiru neurri hartu behar dituzte. Zein dira bi eremu horiek?

- a. *Irakaskuntza eta Kultur jarduera eta ekipamenduak.*
- b. *Irakaskuntza eta Komunikabideak.*
- c. *Irakaskuntza eta Justizia.*
- d. *Irakaskuntza eta Ekonomia- eta gizarte-bizitza.*

44- Espainiak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna...

- a. 1992an sinatu zuen, eta 2001ean berretsi.
- b. Ez zuen 1992an sinatu. 2001ean sinatu eta berretsi zuen.
- c. 1992an sinatu zuen eta 2001ean aplikatzen hasi zen.
- d. 1992an onetsi zuen eta 2001ean ebaluazio lehen txostena aurkeztu zuen.

45- Espainiak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Berresteko Tresnaren arabera, honako hauek hartzen dira eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzatzat:

- a. Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako autonomia estatutuetan ofizialtzat aitortzen diren hizkuntzak.
- b. Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako autonomia estatutuetan koofizialtzat aitortzen diren hizkuntzak, eta, Asturiasko, Aragoiko, Gaztela eta Leongo eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako estatutuek babesten eta zaintzen dituztenak.
- c. Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako autonomia estatutuetan koofizialak diren hizkuntzak, eta, Espainiako gainontzeko lurraldeetan, tradizioz hitz egiten direnak.
- d. Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako autonomia estatutuetan ofizialtzat aitortzen diren hizkuntzak, eta, tradizioz hitz egiten diren lurraldeetan, autonomia estatutuek babesten eta zaintzen dituztenak.

46- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Espainian aplikatzearen gaineko VI. ebaluazio aldian, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak, Nafarroan euskarari dagokionez, berehala bete beharreko gomendioen artean honako hau eman du:

- a. Gizarte- eta osasun-zerbitzuetan euskararen erabilera bermatzeko neurriak hartzea.
- b. Botere publikoek eguneroko prentsa idatzia euskaraz bermatzen duen komunikabide bat sustatzea.
- c. Euskara babesteko eta sustatzeko mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmenak sinatzea euskaraz tradizioz hitz egiten den beste lurraldeetako erakunde publikoekin.
- d. Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzuetan euskararen erabilera bermatuko duten adimen artifizialaren bidezko itzulpen sistemak inplementatzeko neurriak hartzea.

47- Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:

- a. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko da, aldibereko edizio bananduetan.
- b. Eremu mistoan, herrien izendapen ofiziala euskarazkoa ere izanen da.
- c. Irakaskuntzan A, D eta G hizkuntza ereduak ezarriko dira.
- d. Eremu euskaldunean euskara nahitaez irakatsiko da, hezkuntza maila guztietan eta salbuespenik gabe.

48- Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:

- a. Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia bermatuko du jabetza publikoko zein pribatuko telebista, irrati eta gainerako komunikabideetan.
- b. Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia bermatuko du jabetza publikoko telebista, irrati eta gainerako komunikabideetan, baina ez jabetza pribatuko komunikabideetan.
- c. Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.
- d. Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, berak kudeatzen dituen komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.

49- Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 2. artikulua honako hau dio:

- a. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
- b. Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
- c. Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko betebeharra.
- d. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.

50- Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:

- a. Administrazio Publikoek, dauden eremuan daudela ere, ezin diete interesdunei euskaraz aurkeztutako dokumentuen itzulpena eskatu.
- b. Eremu mistoan herritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.
- c. Eremu mistoko toki entitateek gaztelania eta euskara erabiliko dituzte beren xedapen eta argitalpenetan, herritar guztiei zuzenduta daudenean.
- d. Eremu ez-euskaldunean Administrazio Publikoek interesdunei euskaraz aurkeztutako dokumentuen itzulpena eskatu ahal izango diete.

51- Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 5. artikulua Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatu eta eremu horien osaera zehazten du. Horren arabera, eta Foru Legea indarrean sartu zenetik izan dituen aldaketak aintzat hartuta:

- a. Noain (Elortzibar) 2017an eremu ez-euskaldunetik eremu mistora aldatu zen, beste 43 udalerrirekin batera.
- b. Noain (Elortzibar) eremu mistoko udalerria izan da 18/1986 Foru Legea indarrean sartu zenetik.
- c. Noain (Elortzibar) udalerria eremu ez-euskalduneko udalerria da, eta eremu mistora automatikoki sartzen ahalko da, baldin eta toki korporazio horretako udaleko osoko bilkurak aurretiaz eta gehiengo osoz erabakitzen badu.
- d. Noain (Elortzibar) udalerria eremu ez-euskalduneko udalerria da, eta eremu mistora automatikoki sartzen ahalko da, baldin eta toki korporazio horretako udaleko osoko bilkurak aurretiaz eta gehiengo sinplez erabakitzen badu.

52- Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, eremu euskalduneko toki entitateek nola bideratu behar dituzte idazki ofizialak eta komunikazioak zerbitzu zentraletara?

- a. Ele bitan idatzi beharko dituzte, zerbitzu zentralak eremu euskaldunetik kanpo baldin badaude.
- b. Gaztelaniaz idatzi beharko dituzte, zerbitzu zentralak eremu euskaldunetik kanpo baldin badaude.
- c. Euskara hutsean idatz ditzakete, zerbitzu zentralak eremu euskaldunean bertan daudenean soilik.
- d. Euskara hutsean idatz ditzakete, zerbitzu zentralak zein eremutan dauden kontuan hartu behar izan gabe.

53- Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, eremu ez-euskaldunean dauden administrazio publikoetan, bulego eta egoitzetako erroteruak ele biz idatzi behar dira?

- a. Bai, ele biz idatzi behar dira.
- b. Bai, ele biz idatzi behar dira bulego horiek herritar orori zuzenduriko zerbitzua eskaintzen dutenean.
- c. Ez, ele biz idatz daitezke.
- d. Ez, gaztelaniaz baino ezin dira idatzi.

54- Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, eremu mistoan kokaturiko toki entitate batek:

- a. Beste administrazio publiko batzuei igortzen dizkien idazki ofizialak eta komunikazioak ele biz egin ditzake.
- b. Beste administrazio publiko batzuei igortzen dizkien idazki ofizialak eta komunikazioak ele biz egin behar ditu beti.
- c. Eremu euskalduneko administrazio publiko bati zuzenduz gero, ele biz egin behar du beti.
- d. Eremu ez-euskalduneko administrazio publiko bati zuzenduz gero, gaztelaniaz baino ezin du egin.

55- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren ordezkariarik gorena honakoa da:

- a. Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren Gobernu Kontseilua.
- b. Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria.
- c. Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea.
- d. Lehendakariitzako eta Hizkuntza Politikako kontseilaria.

56- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, Euskararen Nafar Kontseiluaren eginkizunetako bat honakoa da:

- a. Txosten ez-lotesleak ematea hizkuntza normalizazioari buruzko xedapen orokorreko proiektuen eta arlo horretako plan orokorren gainean.
- b. Plan Estrategikoak onestea, Kontseiluak erabakitzen duen aldizkakotasunarekin.
- c. Nafarroako Gobernuako departamentuetan aplikatuko den hizkuntza politikaren arau bidezko garapena koordinatzea.
- d. Nafarroako Gobernuaren hizkuntza araugintzaren gaineko irizpen eta txosten lotesleak ematea.

57- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, eginkizun hau “Euskararen presentzia egokia bermatzea ekitaldi publiko guztietan, komunikazioetan, protokolozko ekitaldietan eta, oro har, administrazio publikoen irudi korporatiboan”, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko zein zerbitzuri dagokio?

- a. Protokoloaren eta Irudi Korporatiboaren Zerbitzuari.
- b. Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuari.
- c. Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuari.
- d. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuari.

58- Euskararen I. Plan Estrategikoan Nafarroako Gobernuak bere hizkuntza politika eredu estrategiko berri batean egituratzea proposatzen da eta eredu estrategiko horrek honako bloke hauek ditu:

- a. A) Gizarteari zerbitzuak ematea, B) Ikuskera berria, C) Hizkuntza esparrua, D) Barne kudeaketa.
- b. A) Gizarteari zerbitzuak ematea, B) Hiztun berriak, C) Hizkuntza esparrua, D) Barne kudeaketa.
- c. A) Gizarteari zerbitzuak ematea, B) Hiztun berriak, C) Hizkuntza esparrua, D) Prestigioa eta erakargarritasuna.
- d. A) Gizarte erabilera, B) Ikuskera berria, C) Zerbitzu publikoak, D) Ekonomia eragilea.

59- Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluaziorako aginte-koadroa zerk osatua da?

- a. Adierazle kualitatibo eta kuantitatibo sorta batek.
- b. Euskararen Adierazle Sistemako adierazleek.
- c. Inkesta Soziolinguistikoko adierazleek.
- d. Adierazle kuantitatibo sorta batek.

60- Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazio txosten exekutiboan, hurrengo plangintza estrategikoaren iraunaldiaz gomendio hau ematen da:

- a. 4 urtekoa izatetik 7 urtekoa izatera pasatzea.
- b. 5 urtekoa izatea.
- c. Legealdiaren iraupenarekin bat egitea.
- d. 4 urtekoa izatetik 3 urtekoa izatera pasatzea.

61- Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazio txosten exekutiboan jasotako ondorioetan honako hau esaten da:

- a. EuskaLGintzarekiko lankidetzA indartu da eta horren emaitza da, esaterako, Euskararen Nafar Kontseiluaren sorrera.
- b. EuskaLGintzarekiko lankidetzA indartu da eta horren emaitza da, esaterako, Euskaraldia ekimena.
- c. EuskaLGintzarekiko lankidetzA ez da indartu eta horren ondorioa da, esaterako, Euskaraldia urtero antolatu ez izana.
- d. EuskaLGintzarekiko lankidetzA indartu da eta horren emaitza da, esaterako, Ingura ekimena.

62- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako GobernuA Herriarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta Euskararen Bulego Publikoaren arteko lankidetzA-protokolo orokorrak, 2021-2025 aldian euskara sustatzekoak, honako ezarpen-esparruak jasotzen ditu:

- a. 1. Familia transmisioa; 2. Hiztun berriak; 3. Oinarritzko eta goi mailako hezkuntza; 4. Aisialdia eta kirola; eta 5. Esparru sozioekonomikoa.
- b. 1. Hezkuntza eta helduen euskalduntzea; 2. Euskararen erabilera sustatzea; 3. Euskararen irudi eta atxikimendu soziala; 4. Migrazio politiken aurreko estrategia; eta 5. LankidetzA Europako markoan.
- c. 1. Hezkuntza eta helduen euskalduntzea; 2. Euskararen erabilera sustatzea; 3. Euskarari buruzko gogoeta, sustapena eta prestakuntza; 4. Ikerketak eta hizkuntzaren corpusa; eta 5. LankidetzA Europako markoan.
- d. 1. Familia transmisioa; 2. Hiztun berriak eta prestakuntza; 3. Aisialdia eta kirola; 4. Hizkuntzaren baliabideak, itzulpengintza eta hiztegi gintza; eta 5. Esparru sozioekonomikoa.

63- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, idatzizko ulermenari dagokionez, zein definizio dagokio A1 mailari?

- a. Gai da ipuinak, liburu eta filmen laburpenak eta eguneroko bizimoduari buruzko pasadizoak ulertzeko, gai ezagunekoak eta argi egituratuak badira.
- b. Gai da norbait zerbaitekin ados dagoen edo ez ulertzeko, iritzia modu argian eta soilean idatzita badago.
- c. Gai da haurren eskolako problema eta eragiketa asko ulertzeko.
- d. Gai da argibide errazak eta laburrak ulertzeko: leku batetik bestera nola joan, edo ibilbide bat nola egin, adibidez.

64- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, ahozko adierazpenari dagokionez, zein definizio dagokio A1 mailari?

- a. Gai da zerbaitekin ados dagoen edo ez adierazteko, justifikazio handitan sartu gabe.
- b. Gai da non bizi den esateko, eta bere bizitokia modu sinplean deskribatzeko.
- c. Gai da asmoak eta planak xeheki azaltzeko.
- d. Gai da eguneroko gertaerak kontatzeko, modu sinple eta linealean: pasadizoak, ustekabeak, bizipenak eta halakoak.

65- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, idatzizko adierazpenari dagokionez, zein definizio dagokio A2 mailari?

- a. Gai da datu pertsonalak galdesorta edo inprimaki batean jartzeko: izena, herria, adina, helbidea, lanbidea eta zaletasunak.
- b. Gai da oharra idazteko, non dagoen esanez, zer nahi duen adieraziz eta planak proposatuz, modu soilean.
- c. Gai da pertsonen, tokien eta gauzen deskribapen txukuna egiteko, konparazio errazak baliatuz.
- d. Gai da bere gustuko arloetan testu sinple eta koherenteak idazteko, ikuspuntuak eta iritziak emanez, arrazoi laburrak emanda.

66- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, gaitasun gramatikaletako zein eduki dagokio A2 mailari?

- a. Baldintzazko perpausa jokatu gabea: -(e)z gero.
- b. Konparazio erromanikoa: zenbat eta... -ago.
- c. Baldintzako perpausak: (baldin) ba-...
- d. Konparazio perpausak: baino... -agoa / gehiago, gutxiago.

67- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein elkarreragin-estrategia dagokio B1 mailari?

- a. Gai da esaten dena zenbateraino ulertu duen adierazteko.
- b. Gai da esaldi eginak erabiltzeko, denbora irabaztearren eta hitz egiteko txandari eustearren, zer esan formulatzen duen bitartean.
- c. Gai da eguneroko bizitzako gaiei buruzko eztabaidetan parte hartzeko, hitza hartzeko esamolde egokia erabiliz.
- d. Gai da bere ekarpena eta gainerako solaskideena trebetasunez bateratzeko.

68- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, idatzizko ulermenari dagokionez, zein definizio dagokio B1 mailari?

- a. Gai da egunkarietako azalpen laburren puntu nagusiak ulertzeko: zutabeak, artikulua, erreportajeak, elkarrizketak, gaiak arruntak edo ezagunak direnean.
- b. Gai da leku publikoetan dauden seinaleak eta ohar errazak ulertzeko: leku batera joateko argibideak, arrisku-oharrak, jakinarazpenak eta erakundeen kanpainak.
- c. Gai da ipuin errazetako eta film laburpen errazetako oinarritzko informazioa identifikatzeko (gaia, tokia, pertsonaiak...), batez ere ezagunak badira.
- d. Gai da era guztietako gutunak (formalak edo informalak) ulertzeko, gai orokorrekoak zein bere espezialitatekoak.

69- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, gaitasun gramatikaletako zein eduki dagokio B1 mailari?

- a. Ahalerako adizkiak: nor-nori-nork laguntzaileak, orainaldian.
- b. Indikatiboko lehenaldia: nor-nork laguntzailea, pertsona guztiak.
- c. Baldintzazko esaldiak, lehenaldian nor-nori-nork laguntzaileak.
- d. Aditz iragankorrak eta iragangaitzak: nor-nork, nori-nori-nork, nor, nor-nori aditzak bereizi.

70- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, ahozko adierazpenari dagokionez, zein definizio dagokio B2 mailari?

- a. Gai da kontatzeko aisialdian zer egitea gustatzen zaion, zer egiten duen lanean eta zer interesatzen zaion.
- b. Gai da pertsonen deskribapen xeheak egiteko (zaletasunak, familia, ikasketak...) baita objektuena, tokiena, paisaia eta zerbitzuena ere.
- c. Gai da deskribapen argi eta zehatzak egiteko, bere arloko edo laneko gauzen gainean.
- d. Gai da asmoak, jarrerak eta sentimenduak xehetasun handiz adierazteko, bereak zein besteenak.

71- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein testu-genero dagokio B2 mailari?

- a. Errezeta laburrak (ulermena eta adierazpena, ahoz nahiz idatziz), prozesu errazekoak.
- b. Hedabideetako kontaketak eta azalpenak, gai arruntez eta arinez: albisteak, titularrak, kronikak, pasarte biografikoak, elkarrizketak, erreportajeak.
- c. Joko-arauak eta erabilera-arauak (ulermena, ahoz nahiz idatziz). Errazak eta ohikoak.
- d. Iritzi-zutabeak, editorialak, iritzi-artikuluak, adituen hausnarketak (ulermena, ahoz eta idatziz), arrazoi-kate errazetakoak.

72- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, gaitasun gramatikaletako zein eduki dagokio C1 mailari?

- a. Baldintzazko perpausak: -t(z)ekotan.
- b. Baldintzazko perpausak: ezean/ezik.
- c. Perpaus kontzesiboak, jokatu gabeko aditzekin: -agatik.
- d. Helburuzko perpausak, aditza jokatu gabe: -t(z)earren.

73- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, ahozko ulermenari dagokionez, zein definizio dagokio C1 mailari?

- a. Gai da telebistako albiste labur eta deigarrietan gertaeretako hari nagusia ulertzeko.
- b. Gai da pertsonen deskribapen psikologikoak ulertzeko, batez ere adjektiboetan oinarritutakoak.
- c. Gai da hedabideetako testuak ulertzeko, xehetasunez eta ñabardurez ohartzeko, hitzunen jarrerez eta haien arteko harreman inplizituez, esaterako.
- d. Gai da abisuak eta jarraibide zehatzak oso ongi ulertzeko, baita eremu teknikoan ere, arloa ezaguna badu.

74- HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, ahozko elkarreraginari dagokionez, zein definizio dagokio C1 mailari?

- a. Gai da bere laneko edo arloko informazio, gertaera eta jarraibide zehatzak norbaitekin trukatzeko, eraginkortasunez.
- b. Badaki zalantzak transmititzen, iritziak ematen, baldintzak jartzen eta jarrerak adierazten eta ulertzen, betiere oso modu xumean.
- c. Gai da zerbitzuak erreklamatzeko, eta gatazken konponbidea negoziatzeko: isunak, autoa, lana, ikastaroak eta gisa horretakoak.
- d. Gai da, naturaltasun osoz hitzunen arteko solasaldi bizietan parte hartzeko, ideiak jartasunez eta harridura-hitzak ongi erabiliz.

75- Esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a. Hainbat pertsoni eman diot eskua.
- b. Hainbat pertsoneri eman diet eskua.
- c. Hainbat pertsoneri eman diot eskua.
- d. Hainbat pertsonari eman diet eskua.

76- Esaldi hauetatik zein EZ da arauzkoa?

- a. Bi astean behin argitaratzen da.
- b. Bi astero behin argitaratzen da.
- c. Bi astetik behin argitaratzen da.
- d. Bi astez behin argitaratzen da.

77- Esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a. Epea zabalik egongo da irailaren 10tik urriaren 14ra arte.
- b. Epea zabalik egongo da irailaren 14etik urriaren 20ra.
- c. Epea zabalik egongo da irailaren 30etik urriaren 5era.
- d. Epea zabalik egongo da irailaren 2tik urriaren 24era.

78- Esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a. Zuzendaritzak bere horretan darrai.
- b. Zuzendaritza bere horretan darrai.
- c. Zuzendaritzak bere horretan jarraitzen du.
- d. Zuzendaritzak bere horretan jarrai.

79- Hauetatik zein da zuzena?

- a. Iruñetik Bizkaira.
- b. Iruñeatik Bizkaiara.
- c. Iruñatik Bizkaira.
- d. Iruñatik Bizkaiara.

80- Esaldi hauetatik zein EZ da zuzena?

- a. Maider nire azukre koxkorra da.
- b. Maider nire bikotea da.
- c. Maider nire bikotekidea da.
- d. Maider nire neska-laguna da.

81- Egitura hauetatik zein EZ da zuzena?

- a. Ez du zertan jakin.
- b. Ez du zertan jakinik.
- c. Ez du jakin beharrik.
- d. Ez du zertan jakin beharrik.

82- Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, zein EZ dago ongi idatzia?

- a. Dirulaguntza
- b. Portzentaia
- c. Paisaia
- d. Espediente

83- Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, zein EZ dago ongi idatzia?

- a. Aienatu
- b. Galbahetu
- c. Leihatu
- d. Saihestu

84- Euskaltzaindiaren arauen arabera, zein EZ dago ongi idatzia?

- a. Kultura etxea.
- b. Kultura-etxea.
- c. Kultur etxea.
- d. Kultur-etxea.

85- Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da zuzena?

- a. Euskaldunen % 82k miresten dute Iribar.
- b. Euskaldunen % 82ak miresten dute Iribar.
- c. Euskaldunen % 82ek miresten dute Iribar.
- d. Euskaldunen % 82 inguru miresten dute Iribar.

86- Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da zuzena?

- a. Boto gutxien lortu dituen kandidatura da.
- b. Botorik gutxien lortu dituen kandidatura da.
- c. Boto gutxien lortu duen kandidatura da.
- d. Boto gutxienak lortu duen kandidatura da.

87- Nola idazten da 56.873?

- a. Berrogeita hamasei mila zortziehun eta hirurogeita hamahiru.
- b. Berrogeita hamasei mila zortzirehun eta hirurogeita hamahiru.
- c. Berrogeita hamasei mila zortziehun eta hirurogeitahamahiru.
- d. Berrogei eta hamasei mila, zortziehun eta hirurogeita hamahiru.

88- Nafarroako leku izen hauetatik zein EZ da ofiziala?

- a. Aizarotz
- b. Mugairi
- c. Arraioz
- d. Lekarotz

89- Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dituen 5/2018 Foru Dekretuaren arabera, biziguneen izen elebidun ofizialak erabiltzeko irizpide hauetatik zein EZ da zuzena?

- a. Bizigunea eremu euskaldunean badago, soilik euskarazko izena idatziko da.
- b. Bizigunea eremu euskaldunean badago, lehenik euskarazkoa idatziko da, eta ondoren gaztelaniazkoa.
- c. Bizigunea eremu euskaldunean edo mistoan badago, lehenik euskarazkoa idatziko da, eta ondoren gaztelaniazkoa.
- d. Bizigunea eremu ez-euskaldunean badago, soilik gaztelaniazkoa erabiliko da.

90- *Nafarroako Toponimia Erabiltzeko Oinarrizko Jarraibideak* argitalpenaren arabera, zer da toponimo normalizatua?

- a. Hizkuntza-agintaritza eskudunak toponimo bat izendatzeko zehaztutako forma.
- b. Testu idatzietan toponimo bat izendatzeko normalean erabiltzen den forma.
- c. Euskarabideak toponimo bat izendatzeko zehaztutako forma.
- d. Nafarroako Gobernuak toponimo bat izendatzeko zehaztutako forma.